

FELIX UGARTE IKERLARIA ETA ZIENTZI GIZONA GOGORATUZ

Duela urte bete Felix Ugarteren heriotzaren barri jaso nuenean, ezinezko gerta-kizuntzat jo nuen, aurreko egunean elkarrekin telefonoz mintzatzen egon baiginen. Historia-Geografia saileko aintzindaria nintzen orduan Eusko Ikaskuntzan, baina egia esan Historia sailekoa gehiago Geografia sailekoa baino. Udara aldean, elkarren barri jakin genuen, eta Felix zera adierazi zidan: Eusko Ikaskuntzako Geografia saila indartu nahi zuela. Bere jarrera berri itxaropentsu legez hartu nuen, bere jakituri-az eta adorea erabat jabeturik nengoen eta. Horrela Abenduan egin behar genuen saileko bilera urtarrilerako atzeratu genuen, Tuteran ospatzeko hain zuzen. Bilerarako Felixek geografi saila eraberritzeko eta indartzeko plana aurkeztuko zuen eta bera izango zen ezbaierik gabe geografi sailaren aintzindaria.

Oraindik ondo gogoratzen dut, noiz ezagutu genuen elkar. 1971.an, Derioko Seminarioan, Ander Manterolaren eskutik D. Jose Migel Barandiaranek etnografiako ikastaro berezia zuzendu zuen; ikastaro hori eta gero, Bizkaiko Etniker taldearen gunean sortu zen eta D. Jose Migelen metodologiari jarraituz, 1974.an Anton Erkoreka eta biok, lehen monografi etnografikoak burutu genituen. Ikastaro horretara Jose Mari Salbidegoitia adiskidearekin batera Felix etorri zen egun batez eta bertan solasaldia egiteko aukera genuen. Ordurako Felix, espeleologi eta etnografi gaietan murgildurik zegoen eta bere esperientzia gurearen aldean, haundia zen. 1974.ko abuztuaren 20.an, Oñatiko General Mola izeneko kalearen lehen zenbakian, bizi zenean gutuna igorri zidan adierazten «Gipuzkoako Etniker burutzea ere, ez litzake izango lan txarra». Gonzalo Duok zuzentzen zituen Oinatiko Ikastaro Unibertsitariaren barruan, Azkoitian antolatu genuen etnografi ikerketen arazoa eta bertara gomiturik zegoen eta prest azaldu zen Felix bere zine lanak, («goru eta iruteko proze-soak») aurkezteko.

Harrezkero, Felixen berri noizik behinka izan nuen; goi mailako ikasketa unibertsitarioak burutu eta goi mailako ikerlaria bihurtu zen geomorfologiaren arloan. Horrez gainera bere jakiturgia eta ikerketak euskaraz burutzeko gaitasuna irabazi zuen, euskara zientzi produkzioaren ildoan kokatuz.

1985.an Historia-Geografia saileko aitzindaritzat hartu eta lasterrera, 1986.an, tokian tokiko ikerketak burutzeko ikastaro bereziak antolatu nituen. Edozein ikerlarik, geografiaren jakituriaren berri jakin behar duenaz gero, berehala deitu nion Felixeri ikastaroan partaide eta irakasle izateko eta bere erantzuna baiezkota izan zen. Hor dugu, Tokiko Historiaz-Estudios de Historia Local izeneko liburuan, Eusko Ikaskuntzak argitaratua, bere ekarpena: *Inguru geografikoaren eragina azterketa historikorako*.

Ordu txarrean joan zaigu Felix. Eraberritzen ari den elkarte zientifiko honek, Eusko Ikaskuntzak, Felixen heriotzarekin batera, giza kapital handia galdu du, gehien behar izan duen unean. Geografia sailak ez du aurrera egin. Bere hartan darrai. Felixen planak, hortxe, bere heriotzaren aurreko egunetan bidali zidan faxean daude zirriborroturik.

Omenaldi honekin, alde batetik bere memoria, zientzi gizona izan zen neurriko memoria gogoratu nahi genuke, herri honetan zientzi gizonen ekarpenak ez direlako gehiegi baloratzen. Baina bestalde, omenaldi honekin beste izkutuko pentsakera ere badator: Geografia sailaren berbizkunderako ahalegina. Historia-Geografia sailak, Tuterako bileran omenaldi hau prestatzeko akordioa hartu zuenean, itxaropen horrekin egin genuen. Hala bedi!

Goiherri-Erandion, 1992.eko Abenduan.

Joseba Agirreazkuenaga Zigorruga

1985eko urtarriletik 1992.eko urrira,
EUSKO IKASKUNTZAKO Historia-Geografia saileko aintzindaria.
Gauregunean, E.I.ko lehendakariordea.